



LITERAKTUM

Hitzen hiria

Aurten, Literaktum letren jaialdia azaroaren 11tik 24ra egingo da, sail eta proposamen berriekin eta, beti bezala, kolaborazio-sare zabalarekin. Dena den, bere hartan eusten dio asmo nagusiari, hots, **literaturara beste hizkuntza eta diziplina batzuekin eta eztabaidarik gaurkoenekin batera hurbiltzea.**

Alde horretatik, eta jaialdiak literaturaren eta bere garaiko gizartearen arteko lotarriak arakatzeko duen borondate argiaz, Literaktum 2019 **literaturaren eta feminismoaren arteko loturen isla** gisa aurkezten zaie herritarrei. Binomio hori da jaialdiaren ardatz nagusia, eta emakume idazleek osatutako multzo nabarmen bat bildu dugu hainbat gairi ekiteko: **Elvira Sastre, María Sánchez, Espido Freire, Laura Freixas, Mariasun Landa, Christina Rosenvinge, Paula Bonet, Eider Rodríguez, Kattalin Miner, Lucía Baskaran, Luisa Etxenike, Marta Sanz** eta **Cristina Morales** (urrian 2019ko Espainiako Literatura Sari Nazionala jaso duena) dira edizio honetako idazle batzuen izenak. Nor bere ikuspegia azalduko du identitateaz, feminismoaz edo arte-sorkuntzaz.

Baina ardatz nagusi horrez gainera, beste gai batzuk ere jorratuko dira jaialdian programaturiko jardueretan, hala nola Europaren kultura-, hizkuntza- eta literatura-aniztasuna, poesia bizitzaren motor, edo identitate nozioa auzitan jartzea. Bestalde, ohi den bezala, izango dira azken lanak atera berri dituzten autoreen hitzaldiak ere; besteak beste, **Bernardo Atxaga, Ibon Martín** eta **Karmele Jaiorenak.**

Edizio honetan, pisu berezia izango du euskarazko literaturaren modernotasunean gako izandako liburu baten argitalpenaren 50. urteurrenak: **Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako***. Literaktum 2019k ere bere alea jarri nahi du modernotasunaren sorburuko idazlan horri omenaldi eginez, nola eta erakusketa baten, literatura-ibilbide baten eta mahai inguru baten bidez. Baina Saizarbitoria ez da izango Literaktum 19n omenduko den euskal idazle bakarra: **Joxean Artze oroitz** ikuskizunak Usurbilgo sortzaile 2018an zenduaren poesia- eta musika-ibilbidea berrikusiko du.

Eta izango dira beste proposamen diziplinarteko batzuk ere, non literatura beste hizkuntza batzuekin elkartuko baita, hala nola **Teatro del Temple eta Tanttaka** Teatroaren **Abre la puerta**, edota **Harkaitz Cano, Maite Larburu eta Ion Olanoren Bestaldearen bestaldean**.

Erakusketei dagokienez, Lur editorialari buruzkoaz gainera –*Egunero hasten delakoren* argitaletxea–, beste bi izango dira **Aiete Kultur Etxean**, bat **Jane Austen** idazlearen bizitzan eta obran oinarritua, eta bestea **Rebécca Dautremer** ilustratzailearen ilustrazioetan.

Filmak, mikroeztabaidak, Dickens-en *Eguberrietako ipuinak* direlakoetan inspiraturiko literatura-afari bat, UPV-EHUko Pentsatu! Jaialdiarekin, Etxepare Institutuarekin edo Feministaldia 2019rekin elkarlanean egindako jarduerak, eta Literaktum Txikia, haurrentzako jarduera-programa, haziz doana edizioz edizio: horiek ere osatzen dute sareko jaialdi hau, zeinaren programa hiri osoan barrena zabalduko baita literaturaren festa handia ospatzeko.

Literaktum Txikiari dagokionez, zeinaren helburua literatura zenbait formatutan haur eta gazteei hurbiltzea baita, aurten beteago dator programazioa, antzerki-emanaldiak izango baitira Donostiako zenbait kultur etxetan, bai eta Haurren Eskubideen egunaren ospakizuna ere, eta zenbait lantegi euskal ilustratzaile batzuekin Aiete, Altza, Amara, Intxaurren eta Martuteneko haurtxokoetan.

Bestetik, Literaktum-en eta **Gipuzkoako Liburuzainen Elkartearen** arteko harremanak biziak eta hurbilak dira urte osoan zehar, eta liburu-dendak ere oso presente egongo dira jaialdian. Liburuen eta literaturaren alderako zaletasuna sustatzeko, aurten *Book Friday* delakoaren lehen edizioa antolatu da azaroaren 22rako, eta zenbait ekintza jakin egingo dira parte hartzen duten liburu-dendetan. Jaialdiak aurrera egin ahala aletuko ditugu. **Hamahiru liburu-dendak** hartzen dute parte: Aritz, Casa del Libro, Donosti, Elkar, Garazi, Gurutz, Hontza, Kaxilda, Lagun, Noski, Pitxintxa, Tobacco Days eta Zubieta.

Aurreko edizioan parte hartu zuten **entitate askok** parte hartuko dute aurtengo Literaktum-en ere, beste berri batzuekin batera: Etxepare Institutua, Euskadiko Filmategia, Feministaldia, Gipuzkoako Liburuzainen Elkartea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamendua, Kutxa Kultur eta UPV-EHU Kultura, eta Kulturaren Euskal Institutua, zeinaren eskutik **Adam Zagajewski** idazlea etorriko baita, 2017ko Princesa de Asturias de las Letras saria.

50 pertsonatik gora gonbidatu dira Literaktum 2019 jaialdira. Programazioa sail eta gaika aletutakoan azalduko ditugu. Honako bloke hauek dira nabarmentzekoak:

Literaktumek aurkezten du:

- * azaroak 11, *Etxeak eta Hilobiak*. Bernardo Atxaga, Ernest Lluch KE, 19:30
- * azaroak 20, *La danza de los tulipanes*. Ibon Martín, Tomasene KE, 19:30
- * azaroak 21, *El Fulgor de la Poesía*. Adam Zagajewski, San Telmo Museoa, 19:30

Literatura eta Feminismoa:

- * azaroak 12, *Poesía, prosas y mujeres*. Elvira Sastre & María Sánchez, Okendo KE, 19:30
- * azaroak 13, *Querida Jane, querida Charlotte*. Espido Freire, Aiete KE, 19:30
- * azaroak 13, *Aitaren etxea*, Karmele Jaio. Elkar Liburu-denda, 19:30
- * azaroak 14, *A mi no me iba a pasar*, Laura Freixas & Mariasun Landa, San Telmo Museoa, 19:30
- * azaroak 15, *Hombres y feminismo*, Víctor Parkas & Iván Repila, Koldo Mitxelena, 19:00

- * azaroak 19, *También escritoras*. Christina Rosenvinge & Paula Bonet, Klub Aretoa, 20:00
- * azaroak 20, *Emakumeen hitzak eta gorputzak*. Eider Rodríguez & Kattalin Miner & Lucía Baskaran, Ernest Lluch KE, 19:30
- * azaroak 22, *Monstruas y centauros*. Marta Sanz, Zubieta Liburu-denda, 19:00
- * azaroak 23, *Contra la identidad*. Paul B. Preciado & Cristina Morales, Koldo Mitxelena, 19:00

Eztabaidak:

- * azaroak 16, *Mujeres y pensamiento*. Arantza Etxeberria & Marisa Hurtado, Belén Altuna & Alejandra Martínez, Miren Camisón & Mainer Zilbeti, Kutxa Kultur Plaza, 18:00
- * azaroak 22, *Hizkuntzak, literaturak, Europak*. Iban Zaldúa & James Robertson, Tabakalera, 19:00
- * azaroak 23, *Prosan pentsatu, poesian pentsatu*. Angel Erro & Iñigo Astiz, Kaxilda Liburu-denda, 12:00

Egunero hasten delako: 50. urteurrena

- * azaroak 16, *Ibilbide literarioa: Saizarbitoriaren Donostia barna*. Inazio Mujika, Elkano 7, 11:00
- * azaroak 18, *Egunero hasten delako gaur egundik* (DK Irratia). Iratxe Retolaza & Lourdes Oñederra & Itxaro Borda, Klub Aretoa, 18:00
- * Erakusketa Ernest Lluch Kultur Etxean: *Lur, Kultura Herriarentzat*.

Beste jarduera batzuk:

- * azaroak 8-9, *Nora jarri zintzarria katuari*, Bernardo Atxagaren ikastaroa, Ernest Lluch KE.
- * azaroak 15, *Artze... Joxan, oroitz*. Mixel Ducau & Caroline Philips & Andoni Salamero, Loiola KE, 19:00
- * azaroak 15 eta 22 de , *La joven Jane Austen y Orgullo y prejuicio*. Aiete KE, 18.30
- * azaroak 18, *Bestaldearen bestaldean* (DK Irratia). Harkaitz Cano & Maite Larburu & Ion Olano, Klub Aretoa, 19:00
- * azaroak 21, *La obra de Yannick Bellon*, Luisa Etxenike eta Aixa de la Cruzen arteko solasaldia eta y *L'amour nu* pelikularen proiektzioa. Tabakalera, 19.00

* azaroak 22, *Solasaldia eta afori literarioa: Charles Dickens*. Slawka Grabowska, Convent Garden, 19.00

* azaroak 24, *Patologías, fármacos y trastornos: cuerpos disidentes que reinventan el mundo*. Taller con Paul B. Preciado & Cristina Morales, Kontadores, 18:00

* azaroak 15 eta 22, *La joven Jane Austen y Orgullo y prejuicio* filmen proiektzioa. Aiete KE, 18.30

* azaroak 24, *Abre la puerta*. Ttanta teatroa & Teatro del Temple, Lugaritz KE, 19:30

Erakusketak:

* *Jane Austen*, piezas de la Casa-Museo Jane Austenen Etxe-Museoen objektuak e Maite Gurrutxagaren ilustrazioak, Aiete KE

* *Princesses*, de Rébecca Dautremer, Aiete KE

Literaktum Txikia:

* azaroak 13, *Ipuinak musikarekin*. Sorgina Txirulina. Aiete KE, 18:00

* azaroak 16: *Areto literario: Adur, Adurl, ez naiz zure beldut*. Itzuar zubizarreta & Aitzuber Alonso, Duque de Mandas aretoa, 11:00

* azaroak 16, *Azeriarenaren fabula*. Titiriteros de Binéfar. Aiete KE, 17:30

* azaroak 16, *Peru eta Otxoa*. Didau. Ernest Lluch KE, 17:00

* azaroak 17: *Pequeño Big Blue*. Panicmap, Egia KE, 16:30 + 18:00

* azaroak 20, *Lau*. Salto. Aiete KE, 18:00

* azaroak 21: *Umeen Giza Eskubideen Egunaren Festa*. Asociación Mestiza, Loiola KE, 17:00

* azaroak 21: *New Orlansetik Donostia*, kontzertu didaktikoa. Iban Gurrutxaga & Susana Cencillo & Javi Pérez, Aiete KE, 18:00

* azaroak 22: *Ezberdin bezain eder*. Nerea Ariznabarreta & Mariano Hurtado, Loiola KE, 18:00

* azaroak 22, *Nur pelikularen proiektzioa*. Aiete KE, 17:00

* azaroak 22, *Loops*. Engruna Teatre. Lugaritz KE, 18:00

* azaroak 16 + 23: *Ilustratzaileekin lantegia*: Aiete, Altza, Amara, Intxaurren eta Martuteneko hautxokoetan. 17:00

* azaroak 24, *Gizon zoriontsuaren alkandora*. Teatro Paraíso. Larratxo KE, 18:00

* Ipuinaren ordua: umeen eskubidean landuko dira udal liburutegietan.

Informazio gehiago: www.literaktum.eus